

# ME TOO PROIEKTUA

PSIKOLOGIAKO IKASLEAK

**Emakumeen Kontrako Indarkeriaren  
Aurkako Nazioarteko Eguna**



**2020/11/25**

**Ipintza institutua**

**PENTSAMENDU FEMINISTA**

# AURKIBIDEA



- Aurkezpena (3.orrialdea)
- Me too proiektuaren jatorria (4.orrialdea)
- Nondik norakoak (5.orrialdea)
- Testigantzen adibideak (6.orrialdea)
  - Kirolean (7.orrialdea)
  - Kalean (8.orrialdea)
  - Familian (9.orrialdea)
- Ondorioak (10.orrialdea)
- Erasoen adin eta moten grafikoak (11.orrialdea)





Kaixo!

Batxilergoko 2.mailako ikasleak gara, eta gaurko hontan “me too” proiektua aurkeztera gatoz. Proiektu honen helburua gure artean gerta edo bizi izan ditugun bizipenak ikustearaztea da gehien bat.

Hainbat testigantza jaso ditugu, baina bi taldetan bereiz ditzazkegu. Alde batetik, “egunerokoan” edo ohikoagoak diren erasoak eta bestetik, “gogorragoak” edo larritasun puntu handiagoa dutenak.

Gure beste helburu nagusia, jendeak testigantza hauek irakurtzean, hauekin unkitzea eta horrelako egoera baten aurrean zentzuz jokatzeko da, hori izango bailitzake zentzuzkoa. Era berean horrelako kasuak identifikatzea, gure egunerokotasunean gertatzen direlako.





## ME TOO PROIEKTUAREN JATORRIA

Me too sare sozialetan sortutako mugimendu internazional bat da. 2017ko urrian sortu zen, sexu arazoak eta sexu jazarpenak salatzeke. Harvey Weinstein, zinema ekoizlea, aurkako sexu abusu salaketen ondorioz sortu zen. Mugimendua nagusiki feminista da, baina botere posizioetan harreman homosexualak izatera behartu izan dituzten biktimek ere salatu izan dituzte pertsona boteretsu abusatzaileak.



## **NONDIK NORAKOAK:**

Lehenik eta behin, gure proiektua klasez klase aurkeztu genuen, Soraluzen egindako antzeko proiektu bat eredutzat hartuz. Proiektuan parte hartzeko bi modu bereizi genituen, alde batetik idatzizkoa, eta bestetik posta bidezkoa. Honetarako, gela bakoitzean paperak banatu genituen, bertan, testigantzak eta beste hainbat datu jarri zituzten. Astebetez itxaron ondoren, testigantza guztiak batu genituen, eta hauek sailkatzeari ekin genion. Testigantza bakoitza sailkatzeko bi faktore hartu genituen kontuan: arloa eta adina.



Beste alde batetik, testigantzen edukia aztertu genuen:hauen fidagarritasuna adibidez eta hauetatik ondorio desberdinak atera genituen. Guzti hori bisualagoa izan zedin, datuak grafiko bidez aurkeztea erabaki genuen. Azkenik, jasotako material guztiarekin, aldizkari, erakusketa eta bideo bat egin genituen.





# TESTIGANTZAK

**Adina:** 12

**Sexua:** Neska

**Kasua:** Orain dela hilabete batzuk, nire familiaren hileta baten ondoren bi gizon 50-60 urtekoak gerturatu zitzaizkidan txistuka eta piropoak esaten. Gizon horiek ez zidaten bakarrik usten, nire familiarengana gerturatu arte.

**Sexua:** Neska

**Kasua:** Jaiak ziren, gaua zen. Herriko plazan Egan taldeak jotzen zuen. Ni neska kuadrila batekin nengoen dantza egiten, gustora. Bapatean, atzetik norbaitek ipurdiko bi ataletik heldu, garondoan musu bat eman eta "tia buena" esan zidan. Buelta eman eta mutil kuadrila handia ikusi nuen, barrezka. 16-17 urte inguru edukiko nituen, urte asko pasatu dira, baina oso ondo gogoratzen dut sentitu nuen nazka eta inpotentzia. Beraientzat txantxa izan zenak, amorru handia eragin zidan, markatu egin ninduen. Etxera joan nintzenean ez nuen ezer kontatu, gertatutakoa niretzat gorde nuen. Berdintasuna lortzen ez den bitartean horrelakoak gertatuko direlakoan nago. Nahikoa da!

**Adina:** 12

**Sexua:** Neska

**Kasua:** Taldeak egiterakoan azkena aukeratzen eta txarra nintzala esan zidaten, jolasterakoan ez zidaten baloia pasatzen eta bakarrik uzten zidaten.



**Adina:** 14

**Sexua:** Mutila

**Kasua:** Askotan entzun ditut mutil batzuk neskei esatea futboleko ez jolasteko edo sukaldean egon beharko litzatekela.



**Adina: 13**

**Sexua: Neska**

**Kasua:** Nire lagun batekin nengoen kalean eta nire lehengusuaren lagun batek ipurdian jo eta “que culo” esan zidan. Orduan haserretu egin nintzen eta kristoneko saplastekoa jo nion, ez zidan berriro ezer egin.

**Adina: 13**

**Sexua: Neska**

**Kasua:** Kaletik nindoan eta mutil asko zeuden leku batetik pasa nintzen. Nire gorputzaren inguruko gauzak esaten hasi ziren, eta egun horretatik aurrera beti arropa zabala erabiltzen dut.







9 urte nituela, lehengusu bat geratu zen nire etxean lo egitera, ez zegoen soberako gelarik, beraz, nirean geratu zen, baina beste ohe batean, gauaren erdian masaje bat egiteko esan zidan, bere lekura joan nintzen, eta bere zakila atera zuen, masaje bat hor egiteko esan zidan, ihesbiderik ez nuen ikusten, beraz, baietz esan nuen, oral bat egin nion. Ez zen aldi horretan bakarrik izan, beste gehiago egon ziren, niri ere ikutzen zidan, nire genitalak. Egun batean ahozkoa egiteko esan zidan, baina oraingoan ukatu egin nintzen, hortik aurrera ez zidan ezer gehiago esan. Gaur egun, nire errua dela pensatzen dut...





Festa batean nire bi lagunekin nengoen. Txixa egitera joan ginen bazter batera eta txixa egiten ari ginela mutil bat guri begira zegoela konturatu ginen. Begiratzen zigun bitartean bere burua masturbatzen zegoen. Konturatu ginenean azkar joan ginen.




## Ondorioak:

Lehenik eta behin, ikusi genuenez proiektu honen beharra zegoela eta garrantzia handikoa zela, ondorioak ateratzea erabaki genuen. Eztabaidatu ondoren, hurrengokoa ondorioztatu genuen:

- Gaiaren inguruko informazio falta larria eta arazoak identifikatzeko zailtasunak dituzten pertsonak daude.
- Erasotzak ez daude bakarrik, salatzearen beharra dago!
- Uste okerrak zuzentzeko beharra. Adibidez erasotzaileak gehienetan ezagunak dira.
- Erasoak oso gaztetatik hasten dira, bai erasotzaile, bai erasotzak.
- Informazio eta kontzientziario falta honen aurrean, horrelako proiektuak txikitatik ezarri behako ziren


# Adina




Grafikoari begiratzuz nabarmena da 14-16 urte bitartekoek eraso gehiago jasaten dituztela.



# Motak





Partaidetzan ikusi dezakegu neska gehiagok hartu dutela parte. Honekin, ondorioztatzen dugu emakumeek sufritzen dutela gehienbat.



